

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Andres Etxeberria Iztueta

*Berastegi,
Gipuzkoa
(1942)*

Aurkibidea



Biografia



Amerialde auzoko Ameri baserrian jaio zen 1942an. 11 senide dira. Eskolara gutxi joan zen, baserrian lan egin behar izaten zuelako. 11 urte ingururekin eskola partikularrean ibili zen pare bat hilabetez. Gerora, Leitzako nekazari-eskolan prestatu ondoren, Valladolidera joan zen 25 urterekin "Dirección y gestión de la empresa agraria" izeneko ikasketak egitera. Mutikotatik izan du artzaintzarako zaletasuna, eta etxeko ardiak beti zaindu izan ditu; Valladolidetik itzuli zenean, ordea, bere kontura jarri zituen ardiak. Armuño baserria egin zuen Urdinarrain auzoan eta bertan bizi da orduetik. Arantzazuko artzain-eskolako ikasleak hartzen ditu etxean praktikak egiteko. Egurra lantzea ere gustuko du.

Zintak

BRS-026

- **Proiektua:** Berastegiko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Data:** 2009-06-19
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Transkribatzailea(k):** Etxeberria, Eider

BRS-027

- **Proiektua:** Berastegiko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Data:** 2009-06-19
- **Iraupena:** 15 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider

Pasarteak

1. Umeen hitz egiteko gaitasuna

- **Erref:** BRS-026/003
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:07:12. **Bukatu:** 00:08:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi

Laburpena:

Umeak zirela, Berastegikoek ez zekiten ondo hitz egiten; Leitzakoek, ordea, bai. Izan ere, Berastegiko umeei isilarazi egiten zitzaien helduen aurrean, eta ez zuten normal hitz egin ahal izaten.

Transkripzioa

- Umek, adibidez, eskola-umek. Oain hemen'e beharbada hiztunek bazeudek, ezta? Baiño lehenago guk ez gitxakin hizketan, gure ume-denboran. Ta Leitzeko edozein ume koskorrek zaharrakin ta gaztekin ta bokabularioa esaten zaiona, hiztegi hoi, hoi saillen zekien. Ikeragarritzko errextasunekin. Hor. Ta hizketan ta herri hontan, Berastegin, beti notatu izandu det nik famili batzuk kenduta ez giñakila hizketan. Hemen gehiena hitz eitten zuenak eta aixana hitz eitten zuenak Ansoane ta Goienetxe ta hola besten batzuk'e bai.

- Bai, tarteka.

- Horrek esan nahi zin umekin hartu-eman normalagoa hizketan. Ta guri ixilik egoteko esaten ziguen, zaharrak bakarra hitz ein ber zien. Ba hoi aldatzen baldin bada, formula hoi aldatzen bada, umek ya trato normalen sartzen dittuk.

2. Berastegiko euskararen kalitatea

- **Erref:** BRS-026/005
- **Iraupena:** 0:02:58. **Hasi:** 00:09:02. **Bukatu:** 00:12:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Kultur transmisioa

Laburpena:

<p>Berastegira kanpotik etortzen zen kuadrilla bati buruz hitz egiten du. Kuadrilla hartan adin guztietako lagunek hartzen zuten parte elkarriketan. Berastegin, ordea, umeek ezin zuten helduen aurrean hitz egin; eta horregatik, komunikazio-gaitasun batzuk ez zituzten behar bezala garatu. Andresen ustez betirako gelditu zaio horren arrastoa.</p>

3. Eskolara eguraldi txarra zenean

- **Erref:** BRS-026/008
- **Iraupena:** 0:03:09. **Hasi:** 00:18:12. **Bukatu:** 00:21:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Baserría » Baserriko lanak » Baratzeta eta soroa
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Etxean 11 senide izanda, umetan lan asko egin behar izan zuen. Eskolan hasi baino lehenago, esnea banatzen aritzen zen. 6 urterekin hasi zen eskolan, baina etxean ere lanak egoten ziren soroan, eta eguraldi ona zenean etxean gelditu behar izaten zuen.

4. Eskola partikularrak eta akabo

- **Erref:** BRS-026/009
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:21:21. **Bukatu:** 00:22:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:

<p>11-12 urte zituela, eskola partikularretara joan zen hilabete pare batez. Eskolara joateko etxetik zer bide zegoen azaltzen du.</p>

5. Etxean egin beharreko lanak

- **Erref:** BRS-026/010
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:22:40. **Bukatu:** 00:24:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Baserría » Baserriko lanak » Baratzeta eta soroa
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>Eskolara joaten zen garaian ere, etxean hainbat lan egin behar izaten zituen eskolara joan aurretik eta ondoren. 200 oilo inguru izan zituzten etxean.</p>

6. Karea egiteko prozesuaren nondik norakoak

- **Erref:** BRS-026/011
- **Iraupena:** 0:04:15. **Hasi:** 00:24:32. **Bukatu:** 00:28:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Karea etxean egin izan dute. Umetan noiz edo noiz ikusi zuen etxean karea egiten, baina gerora berak egin izan du. Karea egiteko prozesua nola izaten zen azaltzen du. Lehen jende askok egiten zuen karea.

7. Karearen erabilerak eta onurak

- **Erref:** BRS-026/012
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:28:47. **Bukatu:** 00:31:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Kareak hainbat erabilera zituen: desinfektatzeko, etxea zuritzeko, soroaren azidotasuna kontrolatzeko... Arbiari begiratuta jakiten zuten ea lurrari karea falta zitzaion. Kareak lurra harrotu egiten duenez, landareari on egiten dio.

Transkripzioa

- Karea zertarako erabiltzen zan? Lehen esan dozu oilluen garbitoki azpian botatzeko...
- Bai, baiño karea erabiltzen zan sorotan. Aparte, bueno, letxada pixkat itten zan, ikuillue o zerbait zuritzeko're, etxea zuritzeko're bai, sukaldea ta; ordun oaingo pinture plastikoik eta ez zan. Ta erabiltzen zan, ez zien oso txukun-txukunak egoten etxek, baiño aldin behin erabiltzen zan kare pixkat. Eta sorotan gehienbat urte batzutatik behin soroai botatzen zitzaion karea. Guk PH izeneko kontu hoi ta ez giñun ordun ezautzen, ezta? Baiño gero eskolan ta pixkat ibili nintzenen, zahartutakon, zahartutakon o bastante aurreago pixkat ikasi nittun ezta? Azidezak, eta alkalino eta asunto hoi pixkat...
- Pixkat ze efeko itxen zeban ez?
- Eta lurretan gehienbat nabaritzen zan batibat arbikin karea falta zula. Soro baztarretan ta hasten zitzayon, arbia ateratzen zendun ta karatxo koskor haundi batzuk eta oso arbi raroa, leune eon beharren. Ta ordun konturatzen zan jendea karea falta zula soroak. Hemengo kasoan e? Bestek ez dakit ze kriterio ibiltzen zuen ta ezer'e.
- Ongarri moduan erabiltzen zan.
- Bai, bai, ongarri, bueno, ongarri ez zala bazekien, baiño lurre harrotu itten zun. Lurre harrotu itten du asko. Ta ordun landarentzako ba prestatu itten du lurra ere ondo. Gehiegi botatzen bazu, gehiegi botatako urte hartan zaiña ezin lotuz egoten da lurrei, baiño bere neurrin botatzen baldin bazu ondo erantzuten du.

8. Karea nekazaritzako asmakizun garrantzitsuenetarikoa

- **Erref:** BRS-026/013
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 00:31:02. **Bukatu:** 00:33:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Karea oso asmakizun garrantzitsua izan da nekazaritzan. Izan ere, lurraren azidotasunaren arabera belar mota jakin batzuk jaiotzen dira, eta kareak lurraren azidotasuna kontrolatzen laguntzen du.

9. Karea etxegintzan

- **Erref:** BRS-026/014
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:33:50. **Bukatu:** 00:35:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Lanbideak » Arotzak

Laburpena:

Hasiera batean, karea lurra lantzeko erabiltzen zen. Geroago, buztinarekin nahastu eta etheen egiturak egiteko erabiltzen hasi zen.

Transkripzioa

- Fundamentala izandu zan, geo zertan erabili zan? Baita're aurrena lurra prestatzen ibiliko zian ta gero asmatu zuen, ba, buztina nahastu karea, morteroa deitzen zaiona, morteroa in, ta etxeei estrukturak, paretak eta gauzak, itteko. Osea hemengo baserri denak daude lengoak harrie ta morteroa lurre ta kareakin indakoak, denak. Eta horrek, ba, karea ta buztina ondo nahastu ta gogortu're itten da pixkat, eta harrik bere hartan lehorren jarri gabe, ba harria're hobeto asentatzen dezu ta paretak, hola, hemengo estruktura denak, den-denak, bat utzi gabe, etxek denak hola iñek daude. Bordak, adibidez, borda batzuk badaude, batez ere zenbat harri klase harri asentu onekoak, hor hauzkalden badaude. Eta hor badaude harrik denak lehorren jarritakok. Bordak eiñak bate lurrik gabe, harri hutsez tolestatur ezta? Bate lurrik gabe. Baiño etxek denak lurrekin iñek daude.

10. Karobi-zuloen egitura eta funtzionamendua

- **Erref:** BRS-026/015
- **Iraupena:** 0:05:17. **Hasi:** 00:35:15. **Bukatu:** 00:40:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Karobi-zuloen egitura denborarekin hobetzen joan da. Bi motatako karobi-zuloak ezagutzen ditu Andresek: zakarrezkoak eta arroakoak. Egitura horiek nola funtzionatzen zuten azaltzen du.

11. Karearen beherakada

- **Erref:** BRS-026/016
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:40:32. **Bukatu:** 00:42:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Karea ona zen desinfektatzeko, paretak egiteko eta lurrak lantzeko. Kultura

maila handia behar zen karearen balioa aprobetxatu ahal izateko. Bere garaian, kareari ez zitzaion garrantzia eman eta karea egiteari utzi zitzaion. Kareak, ordea, onura handiak dauzka, eta komeni da hura erabiltzea lurra aberats mantentzeko.

Transkripzioa

- Ordun ba karea zertarako zan? Ba ikusi degu, ba desinfektatzeko alde batetik, oso inportantea dalako desinfektatzeko; beste aldetik, paretak eta gauzak itteko; baiño fundamentalki nik uste gehiena ibili zala lurrek lantzeko, PH iyotzeko ta prestatzeko guk behar dittun baratzak eta soroko gauzek produzitzeko eran jartzeko. Hori ez da entzuten, baiño nik konklusio hori atera det. Gero hori zan kultura mailla garai hartan nik pentsatzen det nahi ta nahi ez haundia behar zula gauza hoik denak ulertzeko ta aplikatzeko, baziela behintzat. Ta gero gertatu dana da gure garaian karea batek balio zun gauz bat balitz bezela, ez zitzaiola bate inportantzik ematen. Gero jendeak karea itteai utzi zion, lur-lanai'e utzi zitzaion, ta gero uste izan da soroa ez baldin badaukezu ez dezula kareik behar; baiño geo gertatzen dana da belarditan belarra gastatzen bazoaz, harek karea kentzen dio lurrei, baiño lurrek eman ber dio karea behar duna, ta dijoa lurra pobretzen-pobretzen. Ta kare falta horrek, ba, gero ekartzen du belarrak ere aldatzen dijoaztela. Belarrak lehorrak ordun. Kare-aplikazioa sistema horrekin o beste kare-formula batzuk'e badaude[...] itten dienak adibidez, ta ordun ba hori aplikatzea komenigarri dala nahiz ta soroa ez ibili.

12. Lurraz jakin vs lurra landu

- **Erref:** BRS-026/017
- **Iraupena:** 0:03:49. **Hasi:** 00:42:27. **Bukatu:** 00:46:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserría » Baserriko lanak » Baratzeta eta soroa

Laburpena:

<p>Produktu bat beti leku batean ereiten bada, lurretik beti substantzia bera hartzen du, eta agortu egiten du pixkanaka. Horregatik, lugoñriaren sistema erabiltzen da. Alpapari esker, lurra nitrogenoz aberasten da. Noizean behin, lurrari karea eman egin behar zaio. Karearen balioaz jabetzen zirenak urruti zeuden lurra lantzen zutenetatik, eta horregatik nekazari askok karea erabiltzeari utzi zioten. Ikasitakoa praktikan jartzea oso garrantzitsua da.</p>

13. Valladoliden ikasteko Leitzan prestatzen

- **Erref:** BRS-026/020
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:48:50. **Bukatu:** 00:50:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolara herritik kanpo
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Ardirik gabe zeudela, behiekin bakarrik egiten zuten lan eta Andres Valladolidera joan zen ikasketa batzuk egitera, Leitzako nekazari eskolan hartarako prestatzen ibili ostean.

14. Valladoliden "Dirección y gestión de empresa agraria" ikasten

- **Erref:** BRS-026/021
- **Iraupena:** 0:03:59. **Hasi:** 00:50:25. **Bukatu:** 00:54:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolara herritik kanpo

Laburpena:

"Dirección y gestión de empresa agraria" ikasketak egin zituen Valladoliden. Ikasketa horiek zergatik sortuko ziren azaltzen du. Ikasketa zabalak ziren, baina ez zen ezertan asko sakontzen. Ikasten zituzten gaien aipamena.

15. Valladoliden ikastean burua ireki eta aberastu

- **Erref:** BRS-026/022
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:54:24. **Bukatu:** 00:56:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolara herritik kanpo

Laburpena:

Valladolideko ikasketei esker, burua ireki, jantzi eta aberastu zuen. 4 urte eman zituen han: hasieran, egoitza batean; geroago, beste hainbat mutilekin pisua konpartitzen.

Transkripzioa

- Gauz oso neretzat urte hoiek nere bizitzan izandu dien aberatsenak sentidu hortan, burue irikitzeko ta gauzek planeatzeko ta iñoren morrontzan edozein preziotan ez ibiltzeko ta hor. Neretzako fundamentala izandu zan.
- Ta zenbat denpora in zendun han?
- Han, lau urte.
- Bertan egongo ziñan beti ez? Esan nahi dot...
- Bai, bertan han hemengoak danak hemengoak egoten giñen, bi pisotan bizi giñen azkena. Harea joan ta aurrenen egondu giñen residentzi baten aurreneko kursoa; gero jendea ezautu ta han jendea sortu zan, hemengoak, eta eskola berdiñen ta. Gero jarri giñen piso bat alkilatuta beatzi mutil piso baten bizitzen. Urtea hala in gendun, ta gero hurrengo urten gehiago azaldu zian ta ordun bi pisota zabaldu giñan.
- Bederatzi mutil piso baten asko izango zan ez?
- Bai, pisa haundi samarra zan, haundi samarra. Bastante... Santiago kalea deitzen zayon baten hantxe; Santiago kaletik ondo-ondon, beste izen bat zun, baiño berta-bertan, zentron ta baldarra baiño piso haundia. Ta hantxe in gendun, geok otorduk eta geok denak itten giñula. Ta gero jende

gehio bildu giñan ta baten zazpi, piso baten zazpi ta besten zortzi egondu giñen. Ta holaxe.

16. Gazta asko egindakoa

- **Erref:** BRS-027/003
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:04:54. **Bukatu:** 00:05:51

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Gazta asko egindakoa da Andres. Urtean 5.000 kilotik gora egin izan ditu azkenaldian.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-08

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com